

B

BARREN

TOKIKOM

Kaletik baserrira

Haritz Arrieta, Aitor Azkue eta Gaizka Etxaniz

Euskara ala ezkara

hitzaldi-zikloa



ANDONI EGAÑA

"Mende laurdena bertsoan"

Aurkezlea: Uxue Alberdi

Urriak 20, asteazkena

ANJEL LERTXUNDI
"Euskara, nire errepublika"
Aurkezlea: Ainara Argoitia
Urriak 27, asteazkena



ANARI (hitzaldi-kontzertua)
"Kantuaren gainean, eta ... azpian"
Aurkezlea: Jon Gurrutxaga
Azaroak 3, asteazkena

Hitzaldiak KULTUR ETXEAN izango dira, 19:00etan hasita.

Antolatzaileak:



elgoibar
bizi-bizirik

Babesleak:



Zatoz gurekin tertulietara!

Euskararekiko dudan harremana orain dela urte batzuk hasi zen. Euskaltegian nenbilen, eta denbora pasa ahala, hangoarekin ez zela nahikoa konturatu nintzen. Horregatik, antolatzen zituzten ekintza guztietan parte hartzen saiatzen nintzen.

Horretaz aparte, telebista, irrati eta liburuen bidez euskararen munduan gero eta gehiago sakontzen hasi nintzen, pausoz pauso. Gauza garrantzitsuena falta zitzaidan, hala ere: berba egitea. Hots, kalean, lanean, lagunen artean, euskaraz aritzea.

Tertulia programa sortu zela jakinarazi zidatenean, izena eman nuen, birritan pentsatu gabe. Nahiko kezkatuta hasi nintzen. Jende ezezaguna, giro desberdina eta nire barruan galdera asko. Kapaz izango naiz berba egiteko? Zeozer gaizki esaten badut, barre egingo didate? Denbora osoan ibiliko dira gure akatsak zuzentzen?

Lehenengo egunean desagertu ziren nire zalantza guztiak. Tertulia ez zen klase bat, tertulietan bakoitzak nahi zuenean hitz egiten zuen, inork behartu gabe, eta talde arduraduna ez zen irakaslea, beste kide bat baizik. Eta inportanteena: oso zuzenketa gutxi izaten ziren. Gauzak modu batean zein bestean esan zitezkeen, eta, batzuetan, arduradunak komenigarriena zein zen gomendatzen zigun.

Harrezkero, zenbat urte, zenbat barre, zenbat txango eta, batez ere, zenbat lagun. Oso esperientzia ona, dudarik gabe.

Egun batean, Tertuliak programa denboraldi berriari ekiteko zegoela, Elgoibarko Izarratik deitu zidaten. Harrituta

geratu nintzen. Ni talde arduraduna?

Berriro zalantzak. Kapaz izango naiz?

Nik baino gehiago baldin badakite, zer?

Akatsak egiten baditut, zer?

Baina berriro ere, lehenengo egunean desagertu ziren nire kezkak. Oso esperientzia polita eta aberasgarria izan zen berriz ere. Eta gaur arte.

Aurten ere jarraituko dugu, eta nik eta nire taldeko kideek gogo handiarekin ekingo diegu tertuliei. Badago guztientzako lekua. Asteazkenean zehar denok daukagu ordu solte bat tertulian aritzeko. Merezki du. Anima zaitzete!

Josean Gomez



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetari: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

"Telebista, irrati eta liburuen bidez euskararen munduan gero eta gehiago sakontzen hasi nintzen, baina gauza garrantzitsuena falta zitzaidan, hala ere: berba egitea"



**Ni ere banaiz
BARREN!**

Zergatik babesten duzu BARREN?

EÑAUT IZAGIRRE

"Batetik, euskaraz delako, eta, bestetik, herriko notizien berri izateko oso baleko tresnak direlako, bai BARREN eta baita elgoiBARREN.net webgunea ere"



BASERRIRA EGINDAKO KALETARRAK



Aitor Azkue, Haritz Arrieta eta Gaizka Etxaniz, Armueta-Zahar baserriko ganbaran.

Kaletik baserrira. Bide hori hartu zuten Aitor Azkue, Haritz Arrieta eta Gaizka Etxanizek joan zen neguan. Armueta-Zahar baserriko erreterroak dira, eta kaletarrak izan arren, erreparorik gabe heltzen diote baserriko lanei, “astia” dutenean. Baserriko lanetan liburuetan eta Interneten irakurritakoarekin hasi zirela aitortu dute, “ezerezetik”, baina inguruko baserritarrak baino liburu hoberik ez dagoela nabarmendu dute: “Jardunak erakusten du”.

Ainara Argoitia

Armueta-Zahar baserrira ez dago isilean sartzerik. Atariko txakur beltzak erakusteko ditu hagin zorrotzak, eta errespetua jartzen du. Badaki etxea zaintzen, badaki etxeokak babesten. “Oierrena da, gure aurreko erreterroarena. Hauxe da hemengo alarma”, azaldu du Aitor Azkuek, harrera egitera irten den gazteak. Mahoizko praka urdinak eta ia belaunera arteko katiuska berdeak jantzita agertu da, lanerako itxuran. Elgoibartarra da, kaletarra, baina gaur egun baserrian bizi da, Haritz Arrieta eta Gaizka Etxaniz herrikideekin batera, eta ikusi du baserrian bizitzea zer den. “Esperimentazio fasean” daudela zehaztu du hala ere, eta argitu du baserrian bizi arren ez direla baserritik bizi. “Badago aldea”, nabarmendu du.

Bigarren negua egingo dute aurten Armueta-Zaharren, eta gusturara nabari zaie. “Etxe bila ari diren gazteak animatuko genituzke gure bi-

dea jarraitzera, eta baita baserritarrak ere baserri hutsak alokairuan jartzera”, esan du Arrietak. Baserrira kasualitatez iritsi zirela aitortu dute hirurek. Gurasoen etxetik irten eta nork bere bidea hasi nahi zuten, eta hala iritsi ziren baserrira, “askorik pentsatu gabe”. “Mundu hau gustatzen zitzaigun, eta kalean baino errenta merkeagoa eskaini ziguten hemen. Baserriak, gainera, bazeukan *plus* bat, naturarekin harreman zuzenean bizitzeko aukera eskaintzen zigulako, kaleko bizioetatik aparte”, azaldu du Arrietak berak. [Hiru hektarea lursail ditu baserriak, hiru futbol zelairen pareko lursaila].

Hasieran, baina, uste baino gogorragoa egin zitzairen. Azkeneko erreterroak irten zirenetik bi urtean hutsik egon zen Armueta-Zahar, eta sei hilabete behar izan zituzten, etxea egokitzeko. “Arkakuso izurria zegoen hemen, eta itokin dezente. Hautsa ugaria da, badakizu, eta zikin-zikin eginda zegoen dena. Goiko ganbaran suge azala ere topatu ge-

nuen, pentsa!", esan du Azkuek. Etxe barruaz gain, olatokia berritu eta belarrak jandako lur saila jorratu zuten, ortua jartzeko, eta apurka-apurka hasi ziren gainerako abereentzako etxolak egokitzen, koadrilakoen eta ezagunen laguntzarekin. "Bazkari baten truke jartzen ditugu lanean. Izan ere, baserrian beti dago egiteko zerbait", dio horren harira Etxanizek.

Jakin badakite eguzkia irteten denetik sartzen den arte jarduten dutela lanean baserritarrek, baina egunaren zati handi bat etxetik kanpora igarotzen dute eurek, ikasten eta lanean, eta "astia eta gogoa" dutenean heltzen diote baserriko lanari. "Gogorik ez dagoenean begiak itxi eta listo! Hemen ezin da besterik egin, ez daukagu txindurrien moduan bizitzeko asmorik-eta", gehitu du Azkuek.

Ganbarako leihotik sekulako ikusmira dute. Are gehiago gaur [martitzena]. Hego haizea dabil, eta egurrezko jarleku luzea atzera egin, eta Karakateri begira jarri dira. Baserriira iritsi zirenean, baina, beste kontu bat zen, negu bete-betean iritsi zirelako. "Logelan lau gradutan ere egon naiz ni. Egongelan, berriz, egon ere ezin izaten da egin. Orduan ezagutu genituen ospelak-eta", esan du Azkuek, eta algaraka jarri ditu lagunak. "Baserrian urtaroak beste modu batean bizi dira. Kanean, txamarra jantzi eta igarri gabe joaten da negua, eta berdin uda. Hemen, bai, bereizten dira urtaroak", esan du Arrietak.

Baserriko bizimodua

Erosotasunean bizitzera ohituta gaude gaur egun, baina gurasoen etxeko berotasuna eta han eskura zituzten erosotasunak laga eta baserri zaharrera joateko autua egin zuten Elgoibarko hiru gazte hauek.

"Baserrian urtaroak beste modu batean bizi dira. Kanean, txamarra jantzi eta igarri gabe joaten da negua"



Aitor Azkue berenjenak batzen, eta beheko argazkian, hiru baserritar gazteak, ortuan.

"Ai, gure gizagaixo hau! pentsatuko zuen gure amak hona lehenengoz etorri zenean", bota du Haritzek. Ziur daude, gainera, bizilagun berriek ere behin baino gehiagotan pentsatu dutela hori, erremintak hartuta ortuan ikusi dituztenean. Armueta-Berriko Alberto Unamuno eta Pakita Arrizabalagak asko lagundu dietela nabarmendu dute. Eskuarea, aitzurra, sardea, igitaia... zer ziren jakin bazekiten, baina horixe, jakin besterik ez. Ortuko kontuak ere pixkanaka-pixkanaka ikasi dituzte. Nekazaritza ekologikoaren gaineko ikastaroren bat egin dute, eta han-hemen ikusitakoarekin egin dute aurrera. "Albertok [Armueta-Berrikoak] behin baino gehiagotan gogorazi digu hau edo beste batzeko sasoi dela", dio Azkuek. "Hanka sartuaz ikasi dugu", gaineratu du Etxanizek.

Noiz zer sartu ikasi dute, eta eurentzako adina hartzen dute; baita gehiago ere batzuetan. "Halakoetan ezagunei oparitzen edo saltzen diegu, eta dirurik lortzen badugu pentsua erosteko erabiltzen dugu". Letxugak, kalabazinak, piperrak, tomateak, bainak, eta porruak batu dituzte, besteak beste, eta fruta arbola ugari ere badituzte: sagarrondoak, intxaurreondoak, gereziendoak, limoiendoa, laranjondoak... "Orain badakigu noiz zer jan behar den. Supermerkatuan urte osoan daude bainak, adibidez, baina sasoiak kanpora daudenean badakigu kanpotik ekarritakoak direla, gustu gabeak", dio Arrietak.

Abereak ere hazten dituzte: oiloak, ahateak, antzarak, ahuntzak untxiak... Orain asko ez dela hil zuten antxume bat, arbolatik zintzilikatuta. Armueta harategikoak lagundu zien, eta bideoan grabatu zuten eurek, "hurrengoan nola egin jakiteko". "Lagunei kontatzen diegunean aurpegi txarra jartzen digute, baina zer jaten dute ba eurek? Nondik datoz harategian zintzilik ikusten dituzten oilaskoak? Horren kontzientzia garbia baserrian hartu dut nik neuk", aitortu du Azkuek.

Antxumea hil zuten lekutik gertu, konposta egiteko edukiontzi bi dituzte, Foru Aldunditik eskuratutakoak. Ikutu modernoak baditu Armueta-Zaharrek, laberinto itxurako baserriak. Zaharra dago, baina bistan da sasoi batean jardun handia izan zela han. Tolarea ere badute, eta labe zaharra ere bai. "Sasoi batean bertan egiten zuten etxerako behar zutena. Gure aurreko erreterroak ere gu baino saiatuagoak ziren, kalekoak izan arren. Haiek egindakoa da sagardo hau", bota du Etxanizek, tolare ondoan pilatutako sagardo botilei erreparatuta. "Lan handia dago hemen, hau martxan jartzeko. Astia hartutakoan saiatuko gara gu ere, beharbada", esan dio aldamentetik Azkuek, irribarre eginez. Baserri egindako kaletarrak dira, gazteak eta saiatuak, eta ahalegina egingo dute.

Emakumeen bizi-itxaropena 87 urtekoa da, eta gizonezkoena 81ekoa

Zenbat urte bizi nahiko zenuke?



Miriam Iriondo
47 urte, dendaria

Ez da galdera erraza! Denok nahi dugu luze bizitzea, baina nahi duguna da ondo bizitzea. 87 urte asko da, oso ondo dagoela uste dut. Ondo iritsiz gero, primeran, baina gaizki egonez gero, alperrik da. Egia da, baina, inork ez duela nahi hiltzea. Bizi-kalitatea da garrantzitsuen.



Estibalitz Katarain
36 urte, irakaslea

Zenbaki bat esatea oso zaila da. Duintasunez bizitzeko moduan eta disfrutatzeko nagoen bitartean, aurrera. Neure buruaren jabe naizen artean bizi nahiko nuke. Hemen bizi-kalitate ona daukagu, eta 87 urteko bizi-itxaropena altua da. Asko luzatu da azkenaldian.



Miguel Alonso
50 urte, langabetua

Ahal den gehien, jakina, baina zenbat urte bizi baino garrantzitsua goa da, nola bizi garen. Ez da mugarik jarri behar. Rokero zaharra naiz, eta gorputzak laguntzen didan arte segituko dut. Hori bai, 87 urte asko dira, eta oraintxe bertan sinatuko nuke adin horretara iritea.



Marivi Unzueta
80 urte, etxeakoandrea

Neure burua gobernatzeko gai naizen arte. Ez diet ingurukoei lanik eman nahi. Orain 80 urte dauzkat, eta abenduan 81 urte egingo ditut. Gertu ikusten ditut 87ak ere. Behin 40 urte betetzen direnean nik uste dut urteak binaka edo hiruak pasatzen direla, ia ohartu ere egin gabe.

Banaketa sistema hobetzeko helburuarekin,
BARREN jasotzen duzuenon buzoietan pegatina txiki bat jarriko dugu
 Ez baduzue pegatina jartzerik nahi, esaiguzue lasai (943 744 112). Eskerrik asko!

BARRENeko banaketa sistema errazteko behar-beharrezkoa dugu zuen buzoiak pegatinarekin markatzea.

Mesedez, ez ezazue pegatina kendu buzoitik. Gure banatzaileek eskertuko dute.



Leku Ederren ez dago komun publikorik: “Aspaldian Leku Ederren ekitaldi asko ari dira egiten, eta ekitaldi jendetsuak dira gainera. Gaueko krosa egin zenean makina bat lagun batu ziren afaritan, motorzaleen kontzentrazioan ere bai, eta joan den asteburuan zer esanik ez, Plaza Txikiko ekitaldiekin.

Komunik ez dago, hala ere, inguruetan, eta iruditzen zaigu Udalak komun mobilak jarri beharko lituzkeela halako ekitaldietarako. Inguruko tabernetara joan behar izaten du jendeak, eta beste askok han-hemen topatzen dute txisa egiteko lekua”.

Semeari prakak ostu dizkiote kiroldegian: “Joan zen astean prakak berriak ostu zizkioten nire semeari kiroldegian. Estreinatuta berri zituen prakak, eta haiek gabe itzuli zen etxera, kirola egiteko. Haserrea eta amorrua sentitu genuen, eta hala gaude oraindik ere. Besteenganako errespetuan hezi gaituzte, eta horixe eskatu nahiko nieke gainerako kiroldegiko erabiltzaileei ere. Horregatik, hartutakoa itzultzeko eskatzen diot prakak lapurtu zituenari”.

San Bartolome kalean estolda arriskutsu bat dago: “San Bartolome kaleko estolda baten ahoa oso irtenda dago, eta estropezu egiteko arrisku handia dago. Aste honetan bertan emakume bat erori da, eta sekulako kolpea hartuta, anbulantzia eraman zuten erietxera. Lehenago ere gertatu izan dira horrelakoak, eta lehenbailehen konpondu behar dela uste dugu”.



Txalo bat Santa Klarako etxe berrietan parke berria egiteagatik: “Oso polita geratu da Santa Klarako parke berria. Egia esanda, auzogune horrek asko irabazi du, eta txalotzekoa da. Umeak pozik ibiltzen dira, eta hori da garrantzitsua. Santa Klaran egin den bezala, herriko beste auzo batzuetan ere parke berriak egin beharko lirateke, esate baterako, Sigman”.



Zuen kezak, gaiderek edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.com 943 744 112

I. URTEURRENA

PEDRO JOSE GABILONDO ELCORO-IRIBE



*Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.*

2009ko urriaren 7an hil zen, 85 urte zituela. I. urteurreneko meza zapatuan, urriaren 9an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokan. Joango zaretenoi eskerrak alde zuretik.





BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Plaza Txikiko Astea

Komediak Oroimenean ikuskizuna ikustera etorri zineten guztioi, eskerrik asko, gurekiko izan zenuten jarrera ezinhobea izan zelako.

Joxemari eta Edurne
(Taupada Antzerki Taldea) ☺

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn en dozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

OHARRA

Urriaren 12ko jai zubia dela-eta, datorren astean ez dugu **BARREN**ik kaleratuko. Hurrengo alea urriaren 22an jasoko duzue.

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi | KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia | HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia | PUBLIZITATEA Eneritz Lazkano, Izaro Etxegibel
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz | MAKETAREN DISEINUA Jaione Uhanue | KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo.

INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Zuhaitz Gurrutxaga

Kaixo, Unai! Zelan doa kurtso berriaren hasiera? Ni neu kezkatuta ibili naiz, denboraldiari behar baino beranduago ekin behar ote nion pentsatuz. Uda gogorra izan da aurtengoa, lanari dagokionez. Denboraldia ekainean bukatu genuen, eta Irunen ez zidatela kontratua luzatuko iragarri zidaten. Azken urteotan nahiko emaitza politak lortu nituelakoan nintzen, eta ez nuen uste talde berria aurkitzeko arazorik izango nuenik. Hala ere, egunak eta asteak pasatu ziren mahai gainean aukera bakar bat ikusten ez nuela.



Unai Arrieta

Bitartean, aurrendenboraldian sartuta zebiltzan talde guztiak, eta hortaz neure kontura eta bakarrik ibili behar izan nuen halamoduz entrenatzen. Behin, Kalamuara korrika, hurrengoan Sallobentera, Morkaikura gero, Karakatera hurrena... (Karakaten ez naute berriro harrapatuko. Gogorra da benetan). Abuztua aurrera zihoan, lagunak oporretan zeuden, lankideak lanean, eta, ni, aldiz, telefonoaren alboan, lana eskainiko zidan norbaiten deiarenean zain. Gero eta egun gutxiago falta ziren fitxaketa aldia agortzeko, eta nik egunetik egunera esperantza txikiagoa neukan lana bilatzeko, eta etsitzen ere hasi nintzen pixkanaka. Behingoagatik imaginatu ahal izan dut gaur egun zoritxarrez langabezia dauden makina bat lagunek bizi duten egoera latza. Telefonoari itsatsita, noiz mirarizko deia iritsiko zain, beste ezer egiteko gogo eta indarririk gabe, buruan lana noiz aurkitu beste idearik ez darabiltelako.

Nik, zortez, azken egunean topatu nuen neure ogibidean aurrera egiteko lekua. Hemendik animorik handiena lan bila dabiltzan elgoibartarrei. Eutsi goiari.

“Nik, zortez, azken egunean topatu nuen neure ogibidean aurrera egiteko lekua”

Gaurko langilegoaren arazoaren errosarioak Zozoak Beleari atal osoa bete lezake, bai, Zuhaitz: gazteen langabezia gora eta gora, eta gora eta gora 45 urtetik harakoena ere. Segurtasun falta eta kezka besterik ez dizkio sortzen erretiroak erretiratzeko zorian dagoenari. Lan-baldintzak eta lanaren ordainek ere, orain urte batzuk baino gorago egin dute eskasian.

Gertukoak ditugu, bai, denok arazook: bi urte pasa langabezia daraman 31 urteko koinatua, bizitza erdia lantoki berean pasa ondoren kaleratua izan den 48 urteko laguna... Orain dela gutxi Araba aldean, Amurrioko inguruetan, ezagutu dudan nire izen bereko abeltzain gaztearen bizimodua datorkit gogora. Aiara udalerriko Opellorra herrigune txiki eta malkartsuan, kostuen azpitik behi-esnea ekoizten duen abeltzain apala da Unai. Basoak eta hobi septikoak garbituz eusten dio arbasoengandik datorkion aziendari.

“Gaurko langilegoaren arazoaren errosarioak Zozoak Beleari atal osoa bete lezake, bai”

Bizi dugun haustura ikaragarri honen sintomarik larrienak eta krudelenak agian arlo ekonomikoan ikusten ditugu. Izan ere, doinu beraren erritmora dantza egiten duten politikari, finantza instituzio eta komunikabideek produktibitateari eta diruari dagokion klabeetan ulertzen dute soil-soilik krisia.


Haustura horren arrakalak, ordea, ekonomiatik harantz doazela iruditzen zait niri. Subjektu kolektiboaren desegitearekin batera neurrigabeko individualismoa gailentzen ari den honetan, gure barne bizitzak husten ari gara geure bizimoduak jabetza materialez gainezka betetzen ari garen bitartean. Zuhaitz, ez al gara ari bilakatzen geure barruaren kontsumazioa kontsumizio?



Elgoibarko Udala



Mendaroko Udala



Lerun Txikin industriagunea egiteko plana baliogabetzeko eskatu dio Okil Beltza taldeak EAEko Auzitegi Nagusiari

Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu berri du Okil Beltzakek

Lerun Txiki-Morterikan industriagunea egiteko planaren kontra auzi-errekurtsoa aurkeztu berri du Okil Beltza taldeak EAEko Auzitegi Nagusian. Errekurtso horren bidez, proiektua bera baliogabetzeko eskatu dio. Horren harira, Lerun Txiki-Morterikan industriagunea egiteko planak “bakar-bakarrik” interes ekonomikoei erantzuten diela salatu zuten Okil Beltzako taldekideek astelehenean, Lerun Txiki baserri okupatuan eman zuten prentsaurrekoan.

Lerun Txikiko proiektuaren kontra egiteko lau-bost arrazoi jaso dituzte errekurtsoan Okil Beltza taldekoek, baina denen gainera bat nabarmendu dute. “Ez dute egin ingurumenaren gaineko eragina neurtzeko azterketarik. 1992koa da proiektua, eta garai hartan legeak ez zuen behartzen, baina gaur egun derrigorrezkoa da”, azaldu du Gaizka Ibañezek. Horren harira, salatu zuten azterketa hori egin ezean, nekez babestu ahal izango direla inguru horretako flora, fauna eta baliabide hidraulikoak.

Ondare historikoa ere babesteko eskatu dute, Lerun Txiki baserriaren egoera



Justo Arriola, Gaizka Etxaniz, Arkaitz Iureta eta Urko Rosario.

aipatuta. “Udalak ez du Lerun Txiki baserria babestu beharrik ikusten, besteak beste, Jaurlaritzako katalogoan agertzen ez delako, baina Lerun Txiki Elgoibarko ondare historikoa dela uste dugu guk”, adierazi zuen Justo Arriolak. Horren harira, eta Elgoibarren hutsik dauden lokalak aintzat hartuta, industriagune berri bat egin aurretik gaur egun bazter lagata

dauden pabiloiak erabiltzeko eskatu dute. Azkenik, industriagune berriak herri-gunetik gutxienez 2.000 metrora egin behariko liratekeela gogorarazi dute, osasunerako kaltegarri, arriskutsu nahiz gogai-karri izan daitezkeen ekintzen gaineko araudiari aipamena eginez. “San Pedro eta Urasandi auzoak ez daude 2.000 metrora”, ohartarazi zuten.

Urriaren 28an zozketatuko dituzte Urruzunoko babes ofizialeko etxeak



Urriaren 28an zozketatuko ditu Etxebidek Urruzunoko babes ofizialeko etxebizitzak. Zozketa Herriko Antzokian egingo dute, goizeko 11:30etik aurrera. 70 etxebizitza dira guztira, eta 253 elgoibartarren artean zozketatuko dituzte. 1.000 lagunek aurkeztu zuten Urruzunoko sustapeneko etxe bat lortzeko eskaera orria, baina azkenean, 253 baino ez zituzten onartu.

Urriko zozketa horretan zorteko diren heritarrek 75 urtean etxebizitza horietan bizitzeko eskubidea izango dute. Izan ere, Urruzunoko babes ofizialeko etxebizitzak azalera-eskubidearen erregimenean esleitutakoak dira. Horrek esan nahi du gehienez ere 75 urte egin ahal izango dituela etxe horretan etxebizitzaren titularrak, eta epe hori igaro ondoren, Eusko Jaurlaritzari itzuli behariko diola, hark inolako kalte-ordainik itzuli beharrik izan gabe. Horrekin lotuta, azalera-eskubideko erregimenean erositako eta 2003. urteko urtarilaren 1a baino lehenagokoak diren etxebizitza babestuek erosteko prozesua ireki du Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak.

Izena **Ane Beitia**



Zinegotzi kargua hartu zuen Ane Beitia elgoibartarrak (EAJ) joan zen asteko osoko bilkuran. Aurrerantzean Jon Zubiaurrek lagatako lekua beteko du Beitiak. Osoko bilkuran egin zuten zinegotzi berriaren aurkezpena, eta Lucio Beitia Elgoibarko alkate ohia eta Aneren aita, bertan izan zen, alabari babesa emateko.

Berbia **Berdinsarea**

Elgoibarko Udala Berdinsarean sartu da 2010ean, EAEko berdintasunaren alde eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako Udalen sarean. Azaroaren 25ean izango da Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Eguna, eta horren harira hainbat ekintza antolatu dituzte. Besteak beste, berdintasunaren aldeko BeldurBarik arte lehiaketa jarri dute martxan, 16 eta 26 urte bitarteko gazteentzako. Aurtengo kanpaina gazteentzako prestatu dute bereziki. Izan ere, iazko datuen arabera, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban genero indarkeriagatik izan ziren hamar salaketatik lau 32 urtez azpiko emakumeek jarri zituzten. Lehiaketaren oinarriak eskuratzeko udaletxeko arreta bulegora jo daiteke. Informazio gehiagorako: www.beldurbarik.org.

Irudia **Ibaira begira dauden etxeak**

Deba ibaira begira dauden etxebizitzetako fatxadak berritzeko programa abiatu dute Elgoibarko Udalak eta Debegeak. Urriaren 7tik aurrera, hasiko dira zerbitzu informatibo hori eskaintzen, doan, udaletxeko hirigintza bulegoan, 10:30etik 14:30era. Zerbitzua kalitatezkoa izan dadin, interesatuek aurrez txanda hartu behar dute honako telefono zenbakira deituta: 943 744 384.



Enpresetako hizkuntza kudeaketari buruzko 30+10 mintegia urriaren 21ean

Enpresetako hizkuntza kudeaketari buruzko 30+10 mintegia antolatu du IMHk urriaren 21erako. Bosgarren edizioa izango da aurtengoa. Hamahiru hitzaldi eskainiko dituzte, eta horietako bost Internetez jarraitzeko aukera egongo da. Mintegia goizez izango da, eta bertan parte hartzeko interesatuek ondorengo telefonoan eman dezakete izena: 943 744 132 (Mikel Goitandia).

Lana bilatzeko ikastaroa emakumeentzat

Udaleko Berdintasun Sailak eta Elgoibarko Lanbidek lana bilatzeko trebakuntza ikastaroa antolatu dute, langabezia dauden emakumeentzat. Informazio gehiago eskuratzeko 943 741 050 (Berdintasun Salla) edo 943 744 425 (Lanbide) telefonoetara deitu daiteke.

1945ekoen eta 1942koen kinto ospakizunak

1945ean jaiotakoek bazkaria egingo dute urriaren 16an, 65. urtebetetzea ospatzeko. Izena emateko, 675 711 860 edo 628 729 774 telefonoetara deitu daiteke. 1942an jaiotakoek, bestalde, azaroaren 20an egingo dute bazkaria Sigma jatetxean. Interesatuek 50 euro sartu behar dituzte Euskadiko Kutzako kontu korrante honetan: 3035 0007 28 0071120102.

San Antolingo eta Aiastiako jaietako errifan zozketak

San Antolin jaietan Kanariar uharteetara bidaia zozketatu zuten, eta zenbaki sariduna azaldu ezenez, Jose Luis Etxabek jaso du saria, ordezeko zenbakiaren jabeak. Janariz eta edariz beteriko karretila, berriz, Xabir Bergaretxek irabazi du. San Migel jaietako txekorraren zozketan, berriz, 2.215 zenbakia izan da irabazlea (Ordezkoa, 4.873).



TXUTXIAMAIIKA,

15 URTE BALOREETAN HEZTEN

Atxutxiamaika! Hitz hori entzutean hasten zen jolasa elizako arkupeetan. Petril gainean zeuden umeek behera egiten zuten salto, eta behean zegoenak, elizarako sarrerako eskaileretatik buelta eman eta beste umeak harrapatu behar izaten zituen. Jolas horren izena hartu zuen 1995ean Elgoibarko Izarrako aisialdi taldeak. 15 urte egingo ditu Atxutxiamai-kak urriaren 16an, eta egungo arduradunek festa antolatu dute, lehengoak eta oraingoak elkar-tzeko. Ginkana, bazkaria eta erromeria prestatu dituzte, bes-teak beste.

Ainhoa Andonegi



Hezitzaile taldea Mundakan, 2008an.

Hezitzaile taldea, 1993ko Olentzero egunean.



Aisialdia euskaraz eskaintzeko helburuarekin sortu zen Atxutxiamai-ka aisialdi taldea 1995ean. Alor horretan hutsunea zegoen herrian, eta 12 urtera arteko umeek aisialdian euskaraz jarduteko sortu zuten taldea Elgoibarko Izarrak. Helburu hori lortu dutela uste du Naiara Martin Atxutxiamaiakako koordinatzaileak, eta gaur egun, haratago doa taldearen helburua. Aisialdia euskaraz eskaintzea da Atxutxiamaikaren izaera, eta hori ez dute sekula ahazten, baina gaur egun, baloreetan hezte da aisial-di taldearen helburu nagusia. Hezkidetzatza landu, aniztasuna, ingurumenareki-ko errespetua... 30 hezitzaile inguru dabilta taldean, eta antolatutako ekin-tza guztien atzean helburu hezitzaileak daude. Azken batean, aisialdi hezi-tzailea eskaintzen du Atxutxiamaiak.

Bea Ansolak 37 urte ditu, eta orain dela hamabost urte Atxutxiamai-kan sorrerako hezitzaile taldean zegoen. “Beti gustatu izan zaizkit umeak, eta Atxutxiamaiakari esker umeekin harreman estua izan dut”. Oroitzapen “oso onak” ditu, eta gaur egun ere, ilusioz ikusten ditu “bere umeak” izan-dakoak hezitzaile lanetan. Ama izan berri da, eta “maitasunez” ikusten du proiektua, eta alaba Atxutxiamaiakako ekitaldietan parte hartzera animatu-ko duela dio, zalantzarik gabe. Gaur egun proiektua “indartsu eta sendo” ikusten du, eta etorkizunera begira Elgoibarko aisialdian paper garrantzi-tsa izango duela uste du.

1995. Eguna Patinetan lasterketako erretratua. Animoak ematen Alfredo Etxeberria, egungo alkatea.

Andoni Rementeria zen Atxutxiamaikako hasierako hezitzaile taldeko beste kideetako bat. 21 urte zituen Elgoibarko Izarrak estreina-ko begirale ikastaroa antolatu zuenean. "Anaiak, arrebak eta hirurok eman genuen izena, eta sekulako esperientzia izan zen". Ostiraletan eta zapatuetan izaten zen ikastaroa, eta 21 urteko gazte batentzat asteburuak ikasten pasatzea sakrifizioa izan daitekeen arren, Rementeria anai-arrebak "pozik" joaten ziren ikastarora. "Gauza pila bat ikasi nituen", esan du Andonik irribarrez. Bistan da oroitzen onak gordetzen dituela. Gaur egun, gainera, bere ikasle izandako ume batzuk Atxutxiamaikako hezitzaile dira, eta horrek harro sentiarazten du: "Zer bait ondo egin genuenaren seinale da hori, ezta?". Bere iritziz, umeak ume artean hazi eta hezi behar dira, eta Atxutxiamaikak ildo horretan egiten duen lana "sekulakoa" dela uste du.




2008ko udaleku itxiak, Mundakan.



1995ean, Aitor Rementeria hezitzailearekin mendi irteera.



Askizuko aterpetxeean, 2007an.



Udaleku irekiak. Sallobentera irteera, 2007an.



2004an, Aubixan, Ikastolako umeekin.



Nagusiak beti nagusi, eta umeak beti ume. Hori horrela denik ezin ukatu, baina egia da baita ere garaiak asko aldatu direla, eta gaur egungo aisialdia ez dela lehengoa bezalakoa. Esate baterako, Atxutxiamaiak jolasarekin hazi dira herriko ume asko, baina beste pila batek ez dute inoiz jakingo zer zen hori. Naiararen ustez, gaur egungo jolas askok indibidualismoa sustatzen dute, eta hori ez dator bat Atxutxiamaiakaren helburuekin. "Gure ekin-tzetan eta udalekuetan ez da telebistatik ikusten, eta aparatu elektronikoak ez dira erabiltzen, baina umeek ez dute horren falta igartzeko". Antzinako jolasei ere eskaintzen die tartea Atxutxiamaiak; txapak, tabak, kanikak... Talde izaera eta sormena lantzeko jolasei ematen die lehentasuna, eta Naiararen esanetan, gainera, "oso ondo pasatzen dute". Haren iritziz, aisialdian lantzen dituzten baloreak hezkuntza ez formalean ere zaindu egin behar dira, umeen egunerokotasunean, baina askotan "irtenbide errazenera" jotzen dela uste du.

Lehengo eta oraingoen festa

Lan handia egin du Atxutxiamaiak 15 urte hauetan, eta Naiara Martinen iritziz, 15. urteurrena ospatzeko arrazoi asko dituzte. Haur, guraso eta hezitzaile direnak eta izan direnak gonbidatu dituzte urteurreneko jaialdira, denen artean sortu zutena elkarrekin ospatzeko. Ginkana, bazkaria eta erromeria prestatu dituzte, eta nahi duenak Elgoibarko Izarran erosi ditzake tiketak. 200 hezitzaile inguru ibili dira Atxutxiamaikan, eta horiekin hezi diren umeen zerrenda are eta luzeagoa da. Une onak eta txarrak izan ditu Atxutxiamaiak, baina ilusioak ez du inoiz huts egin, eta orain ere, ilusioz beterik daude beste horrenbeste urte eta gehiago betetzeko.



2008ko udalekuetan Mundakako arraunlariek ateratako argazkia..



Umeak jolasean Aubixan, 2004an.



Lehenengo hezitzaile taldea Aubixan, 1994ko begirale ikastaroan.



1995ean, Atxutxiamaiakako lehenengo hezitzaile taldea.



1995ean Lurra eta Hizkuntza egitasmoan ateratako argazkia.



1997ko begirale ikastaroa.



atxutxiamaiak

Plaza Txikiko jaiei Errosario kalekoek hartu diete erreleboa

Amaitu dira Plaza Txikiko jaiak, eta bihar bukatuko dira Errosario kalekoak, pilota partida eta herri kirol saioarekin. Joan den asteburua, baina, ospakizunez betetakoa izan da. Eguenean eta barixakuan antzinako jolasak ezagutzeko aukera izan zuten herriko txikiek Plaza Txikian, eta barixaku gauean jendetza handia batu zen Taupadak antzerki taldearen *Komediak Oroimenean* ikuskizuna ikusteko. Zapatuan, berriz, ia 300 lagun elkartu ziren bazkaltzeko. Domekan, Errosario kaleko jaiak hartu zieten erreleboa. Haritz dantza taldekoek Errosario kaleko Ama Birjinaren ezpata-dantza egin zuten, eta eguaztenean, txokolatea banatu zuten Baltasar elkartekoek.



Maria Angeles Zabala, 'La niña de los peines'.



Jendetza handia batu zen zapatuan Plaza Txikiko herri bazkarian.



Haritz dantza taldekoek Errosarioko Amaren Ezpata Dantza dantzatu zuten domekan.



Alosasig magoa eta Zayra.



Antzinako jolasetan aritzeko aukera izan zuten umeek Plaza Txikian.



Urteroko txokolata dastatzea Errosario kalean.



Taupada antzerki taldekoak saio bukaeran, elkarrekin kantuan.

Andoni Egaña bertsolariak zabalduko du, urriaren 20an, 'Euskara ala ezkara' hitzaldi zikloa

Anjel Lertxundi idazle-zutabegilea eta Anari abeslaria izango dira beste bi gonbidatuak

Gotzon Garate idazle eta euskaltzalearen heriotzaren bigarren urteurrenaren harira, *Euskara ala ezkara* hitzaldi zikloa antolatu dute Elgoibarko Izarra kultur Elkarteak eta Elgoibarko Udalak, Kutzaren eta Danobaten babesarekin. Hiru hitzaldi izango dira guztira: estreinakoa, Andoni Egaña emango du, urriaren 20an, eta "Mende laurdena bertsotan" izango da hitzaldiaren izenburua. Uxue Alberdi idazle eta bertsolariak egingo ditu aurkezpen lanak. Urriaren 27an, berriz, Anjel Lertxundi idazlearen txanda izango da, "Euskara, nire errepublika" hitzaldiarekin. Ainara Argoitia BARRENEKO kazetariak egingo dio aurkezpena. Azkenik, azaroaren 3an Anari abeslaria "Kantuaren gainean, eta... azpian" hitzaldi-kontzertua eskainiko du, eta aurkezpen lanak Ion Gurrutxaga musikari elgoibartarrak egingo ditu. Hiru hitzaldiak asteazkenetan izango dira, 19:00etan hasita, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.



Urriaren 15ean amaituko da 2011ko egutegia osatzeko argazki lehiaketan parte hartzeko epea

2011ko egutegia osatzeko argazki lehiaketa antolatu dute aurten ere Udalak eta Ongarri argazkilarik elkarrekin, eta urriaren 15ean amaituko da lana aurkezteko epea. "Elgoibar" izango da gaia, eta edozein motatako argazkiak aurkeztu daitezke, beti ere, herriari erreferentzia egiten badiote. Partaide bakoitzak hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu gehienez, paperean nahiz euskarri digitalean. Epaimahaiak hamabi argazki aukeratuko ditu, eta 60 euroko saria jasoko du bakoitzak. Erretratuak Udaleko Euskara Sailean (Kultur Etxean) entregatu daitezke, edo e-postaz euskara@elgoibar.org helbidera bidalita.

Danbaka musika lehiaketari jarraipena egiteko akordioa sinatu du BARRENEK Goienarekin



Goiena telebistak antolatutako Danbaka musika lehiaketari jarraipena egiteko akordioa sinatu zuen BARRENEK martitzenean. Danbaka musika lehiaketaren laugarren edizioa izango da, eta guztira, hogeita musika taldek hartuko dute parte. Eibarko *Eta Kitto*, Ermuko *Drogeteniturri*, Sorraluzeko *Pil-Pilean* eta Durangaldeko *Anboto* astekariek ere eskaini diote babesa proiektuari.

Euskal dantzen ikastaroan izena emateko epea zabalik

Haritz dantza taldeak eta Inazio Bereziartua musika eskolak euskal dantzen ikastaroa antolatu dute. Urriatik abendura bitartean eskainiko dituzte saioak, hilaren 19an hasita. Astelehen eta eguaztenetan hasiberrirentzako ikastaroak emango dituzte, eta astelehen eta eguaztenetan, aurretik ibilitakoentzat. Ikastaroak 21:00etatik 22:00etara izango dira. Interesatuak urriaren 16ra arte daukate izena emateko epea. Informazio gehiago eskuratzeko musika eskolara jo daiteke (943 742 145).

Administrarritza ikastaroa doan, langabetuentzat

Langabetuentzako doako administrarritza ikastaroa antolatu du Meka institutuak. Kontabilitatea, fakturazioa, informatika eta zergak izango dira, besteak beste, ikastaroan landuko dituzten gaiak. Plazak mugatuak dira, eta izena lehenbailehen emateko gomendioa egin dute antolatzaileek. Informazio gehiagorako: 943 744 425.

'Emakumeen erretratuak' izenburuko zine zikloa antolatu du Ongarrik

Bederatzi film emango dituzte urritik abendura bitartean

Ongarri zine klubak *Emakumeen erretratuak* izeneko zine zikloa antolatu du, Udaleko Berdintasun Sailaren laguntzaz. Bederatzi film emango dituzte guztira, eta emakumeak izango dira protagonistak. Bi gai izango dituzte pelikulek komunean: Batetik, bizitzako une jakin batean krisi egoera larri bati aurre egin beharko diete emakumeek, eta bestetik, norberaren herrialdetik immigratu behar izan duten emakume gazteen istorioak kontatuko dituzte.

Villa Amalia pelikula frantsesa izango da lehenengoa, hilaren 21ean. Pelikula horretarako protagonista bizitzako une latz batean murgilduko da. Gau batean, Annek beste emakume batekin ikusiko du Thomas mutil-laguna. Orduan, Thomas uztea erabakiko du. Handik aurrera soilik musikak lasaituko du Ann.

Pelikula guztiak eguenetan izango dira, 21:30ean, Herriko Antzokian.



'Fo' antzezlana taularatuko du gaur iluntzean Los Modernos taldeak Herriko Antzokian



Los Modernos taldeak *Fo* antzezlana taularatuko du gaur, Herriko Antzokian, 20:30etik aurrera. *Fo* alegiazko pertsonaia bat da, filosofo moduko bat, eta bizitzako gaiak naturaltasunez, graziaz eta sormenez lantzen ditu. Abesti klasikoez eta keinuz lagunduko diete aktoreek argudioari. Umorez jositako antzezlana izango da. Sarrerak aurrez erosteko aukera dago www.kutxa.net webgunean, eta bestela, Herriko Antzokiko txarteldegian bertan erosi ahal izango dira.

Erabateko Barkamenari buruzko hitzaldia eta tailerra

Erabateko barkamenaren gaian aditua den Andrea Sydowk hitzaldia eskainiko du datorren barixakuan. Erabateko barkamena zer den azaltzeaz gain, ariketa praktikoak egingo dituzte, teknika horrekin lortzen diren askatasuna eta barne bakea ikusteko. Erabateko barkamena eguneroko metodoa da, erabiltzeko erraza eta berehalako emaitzak ematen ditu. Hitzaldiaren hurrengo egunean, hilaren 16an, erabateko barkamenari buruzko tailerra egingo dute, hitzaldian ikasitakoa praktikan jartzeko.



Esperientzia Eskolan izena emateko epea zabalik

Debabarreneko Esperientzia Eskolak urriaren 22an ekingo dio ikasturteari. Ikasteko eta aktibo sentitzeko go-goia duten pertsonentzako ikastaroak eskainiko dituzte, 50 urtetik gorakoentzat. Interesatuak udaletxean eman dezakete izena. Informazio gehiagorako: 695 788 936 edo 626 773 676.

Urrirako hainbat ekitaldi antolatu ditu Haizeak

Egitarau zabala prestatu du Haizea emakume taldeak urrirako. Hilaren 15ean bazkide topaketa egingo dute, eta hilaren 23an, Loredi Salegik programazio neurolinguistikoari buruzko hitzaldia eskainiko du. Urriaren 24an Gasteizera egingo dute irteera, eta azkenik, arte eta literatur tailerrak egingo dituzte urriaren 25ean eta 26an. Informazio gehiagorako Pitxintxu liburu-de نادara jo daiteke.

Maite Maiora mendaroarrak bigarren egin du Zumaiako Zakila Biran

Elgoibartarren artean Xabier Bergaretxe izan da azkarrena



Zapatuan jokatu zen Zumaiako Zakila Bira proba, hogei kilometroko lasterketa entzute-tsua. 802 lagun zeuden izena emanda, baina hego haizeak eta eguraldi sargoriak gogor estutu zituen korrikalariak eta 658 lagunek amaitu zuten, tartean Elgoibartik eta Mendarotik joandako hemeretzi lagunek. Maila txukuna eman zuten gure ordezkariak. Maite Maiora mendaroarrak, esaterako, bigarren egin zuen emakumezkoetan, Claudia Behobideren atzetik. Gizonezkoetan, berriz, Xabier Bergaretxe izan zen gure ordezkarietan azkarrena. 1:13:32ko denboran osatu zuen Bergaretxek ibilbidea.

Zakila Birako sailkapena

SAILKAPENA

11 Xabier Bergaretxe	1:13:32
47 Osel Sanchez	1:18:40
79 Jon Larrañaga	1:21:01
82 Iñigo Salegi	1:21:05
103 Iñigo Iturbe	1:22:17
127 Jose Antonio Ruiz del Rey	1:24:18
161 Asier Arrieta	1:26:05
176 Gotzon Zulaika	1:26:49
180 Maite Maiora	1:27:01
200 Julen Irizar	1:27:59
303 Jokin Agirrezabala	1:32:24
308 Alberto Arberas	1:32:39
379 Iker Amutxastegi	1:35:41
403 Jose Luis Diez	1:36:51
426 Elias Fernandez	1:38:20
464 Asier Arzamendi	1:40:13
485 Jurdan Ezenarro	1:41:37
539 Jabier Oñederra	1:44:43
552 Gorka Gallastegi	1:46:12

San Pedroko igoera eta Karakateko mendi bizikleta irteera jokatu dira martitzenean, hilan 12an

Bizikleta zaleentzat egun berezia izango da urriaren 12a, martitzena. Izan ere, egun horretan bi proba izango dituzte aukeran Elgoibarren. Batetik, Karakateko mendi bizikleta irteera, eta bestetik, San Pedroko igoera. Jai eguna izanda, jende asko batzea espero dute bataren zein bestearen antolatzaileek.

Natura zale eta bizikleta zaleei zuzenduta dago Karakateko mendi bizikleta irteera, eta Debarrenako BTT zentroko ibilbideak ezagutarazteko sortu zuten, iaz. Aurten, txirindulariek bi ibilbide izango dituzte aukeran: 25 kilometrokoa eta 45 kilometrokoa. Hala ere, bizikletan ibilitako entzako proba dela ohartarazi dute antolatzaileek. Izan ere, ibilbide laburrak zailtasun maila "altua" dauka, eta luzeak, berriz, "oso altua". Ibilbidean zehar, bi ano

edo abituallamiento jarriko dituzte, eta parte hartzaileen artean bazkariak, produktu gastronomikoak, sparako sarrerak eta bisita gidatuetarako txartelak zozketatu dituzte, besteak beste.

Martitzenean amaitu zen aurrez izena emateko epea, baina egunean bertan ere egongo da horretarako aukerarik, Mintxetan, 8:00etatik 8:45era. Informazio gehiagorako: www.debarrenaturismo.com.

San Pedroko urteroko igoera

Egun berean San Pedroko igoera ere jokatu da, urtero legez. 12:00etan irten-go dira txirindulariak kaletik, eta San Pedroko aldapa pikoetan neurtuko dituzte indarrak. Iaz, eguraldiak lagundu ez zuen arren, 35 txirindularik parte hartu zuten, eta Josu Uriarte markinarra nagusitu zen (14:00:00), 2008. urteko edizioan bezala.



Josu Uriarte, San Pedroko igoerako iazko irabazlea.

Iñaki Ortuoste iritsi zen haren hurrengo, hamabost segundu eskasera. Jose Mari Fernandez elgoibartarra sailkatu zen hirugarren.

Bihar, hilak 9, jokatu da 10 bai txapelketako finala

Txapelketaren balorazio positiboa egin dute antolatzaileek

Azkeneko txanpara iritsi da 10 bai txapelketa. Atzo arratsaldean jokatu zituzten bi finalerdiak, eta bihar, hilaren 9an, jokatu da final handia, 12:00etan, Plaza Handiko frontoian. Atzo, edizio hau ixteko orduan, zehaztu gabe zegoen artean zeintzuk izango ziren finala jokatu zuten bikoteak, arratsaldez jokatu zituztelako partidak. Nolanahi ere, eta final handiaren atarian, txapelketaren inguruko balorazio positiboa egin zuten antolatzaileek. Eguraldia lagun izan dute txapelketa osoan zehar, eta herritarrek egin dieten harrera ere primerakoa izan dela nabarmendu dute. Horrek guztiak lanean jarraitzeko indarra eman die. Ez daude geldirik egoteko, ez, eta dagoeneko hasiak dira pala txapelketa bat antolatzeko lanetan. Era berean, bertso afari bat ere antolatu dute, azaroaren 19rako.

Bi helburu nagusirekin sortu zuten 10 bai taldea Elgoibarko hainbat pilotazalek: batetik, esku pilota txapelketak sustatzeko, eta, bestetik, Elgoibarren 10 koadroko frontoi bat behar dela aldarrikatzeko.

Herri Eskolako kantxa alokatzeko aukera dago

Astegunetan Herri Eskolako kantxa estalia alokatzeko aukera dagoela jakinarazi du Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak. Egunean bi ordu izango dira aukeran, 19:00etatik 20:00etara, eta 20:00etatik 21:00etara. Orduko 20 euro kobratuko dute alokairua, eta Olaizaga kiroldegian egin beharko da ordainketa. Erreserbak bezperaz egin beharko dira. Era berean, hilabeteko erreserba ere egin ahal izango da.

Inauguratu dute Mintxetako pista berria



Zapatuan inauguratu zuten Mintxetako pista berria, 1.078 metroko ibilbidea. Agintariez gain, Estatuko krosen antolatzaileek parte hartu zuten inaugurazio ekitaldian, eta ondoren, zinta ebaki ostean, Elgoibarko bost atletek korrika osatu zuten ibilbidea. Korrikariaren artean, Jose Antonio Ruiz del Rey izan zen azkarrena, 3:08ko denborarekin. Haren ondoren sailkatu ziren Mikel Anakabe (3:16), Jorge Gonzalez (3:20), Asier Arrieta (3:30) eta Jose Ignacio Perez (3:52).

EMAITZAK

FUTBOLA

Elgoibar 2 – Aurrera Vitoria 0 (Nagusiak)
Lazkao 2 – Elgoibar 1 (1. erreg.)
Elgoibar 0 – Beasain 2 (Jub.)
Eibar 7 – Elgoibar 0 (Kad. B)
Zarautz 4 – Elgoibar 4 (Txiki)

ESKU PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa

Lagunak 9 – Aurrera Saiaz 22 (1. mailako nagusiak)
Igeldo 22 – Lagunak 12 (1. mailako nagusiak)
Tartalo etxe 12 – Lagunak 22 (3. mailako nagusiak)
Intzurre 10 – Lagunak 22 (1. mailako jubentilak)
Intzurre 19 – Lagunak 22 (3. mailako kadeteak)
Palaz
Lagunak 25 – Euskal Jolas 12 (3. mailako nagusiak)

ARETO FUTBOLA

Concepto Createch. 5 – La Bellota 2

ESKUBALOAIA

Alkorta Elg 27 – Irungo La Bakaladera 25 (Sen. mut.)
Beristain banaketa 35 – Ordizia 16 (Jub. mut.)
Txarriduna Elg. 44 – Karibe Zahar 18 (Kad. mut.)
Leizaran 22 – IMH 12 (Kad. nes.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Domekia, 9

16:00 Concepto Createch – Meatzari

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 9

10:00 Elgoibar – Eibartarrak B (Kad.)

11:30 Elgoibar – Aloña Mendi (Inf.)

13:00 Elgoibar – Bergara (Inf. txi.)

16:30 Elgoibar – Zestoa (Pref.)

Domekia, 9

12:00 Elgoibar – Soraluze (Kad.)

ESKUBALOAIA (Kiroldegian)

Barixakua, 8

20:45 Alkorta – Amenabar Zarautz (Sen. mut.)

Zapatua, 9

11:00 IMH-Urola (Kad. nes.)

17:30 Lauko – Basauri (Kad. nes.)

19:00 G.E. Sanlo – Basauri (Jub. nes.)

Domekia, 10

11:15 Ikus – Oñati (Inf. nes.)

12:30 C. Astigarraga – Oñati (Inf. nes.)

ESKU PILOTA

Barixakua, 8

21:15 Lagunak – Gazteleku (3. mailako nagusiak)

21:45 Lagunak – Ilunpe (1. mailako nagusiak)

LANA

ESKAERA

- Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo umeak edo nagusiak zaintzeko. ☎ **648 603 029**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. ☎ **645 461 600 / 943 743 638**
- Neska garbiketa lanak egin edo umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **686 234 612**
- Neska gaztea umeak zaintzeko prest. ☎ **650 280 670**
- Gizona elektrizista, pintore edo peoi lanetarako prest. ☎ **606 612 834**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Orduka. Gauzez ere bai. ☎ **630 365 137**
- Neska nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **666 771 701**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **696 246 962**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **645 557 141**
- Mutila lanerako prest. Portalak edo baserriak garbitzeko edo kontserje lanetarako. ☎ **645 555 265**
- Neska nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Arratsaldez. ☎ **677 155 611 (Anabel)**
- 32 urteko neska nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **681 212 449**

ESKAITZA

- Tabernan lan egiteko pertsona behar da. Astean hogeiru ordu. ☎ **628 528 268**
- Emakumea behar da bi ume zaintzeko. Hogeiru ordu astean. ☎ **696 178 695**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Pisua hartuko nuke alokairuan Mendaron. Mendarokoa naiz. ☎ **687 075 555**

AUTOAK ETA GARAJEAK

- Garaje irekia alokatzen dut Arregitorre 8an. ☎ **685 796 713**
- Volkswagen Kalifornia T4 furgoneta salgai. 146.000 km. Egoera onean, sukaldia, harraska, hozkailua. Lo egiteko lau leku. 13.700 euro. ☎ **671 841 563**
- Garaje itxia alokatzen dut Jausoron. Plaza Handitik gertu. ☎ **672 42 22 37**

PARTIKULARRAK

- DBHko matematikako klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. Esperientziaduna. ☎ **943 744 206**
- Magisteritzako ikasleak klase partikularrak emango lizkieke LHko umei. ☎ **665 759 849**
- Ingelesa ikasteko partikularrak ematen ditut. ☎ **679 113 446**
- DBHko ikasleei klase partikularrak emateko pertsona behar da. ☎ **652 763 264**

BESTELAKOAK

- BMW markako lau llanta salgai. 16 pulgadatakoak. Oso egoera onean. 400 euro. BMW serie 3 autorako osagarriak opari, 2001ekoak. Bi klimatizagailu panel, bi Blaupunkt irrati-kasete, aurrealdeko sarea. ☎ **664 203 406**
- Ordenagailua salgai. Pentium 4, 3000, 1GB. Windows XP, DVD grabagailua, 80GBko disko gogorra, arratoia, teklatura, eta Epson inprimagailua. 250 euro. ☎ **628 581 900**
- Jatetxea itxi dugulako, barruko altzarieta tresneria guztia saltzeko premia daukagu: Mahaia, aulkiak, hozkailua... ☎ **635 751 642**



• Zorionak, **Aimar**, urte bat egin duzulako. Muxu bat, etxekoen partez.



• Zorionak, **Maleni** Dagoeneko urte bat! Muxutxo bat zure lehengusina Naroaren partez.



• Zorionak, **Xuban Varona**, urriaren 5ean urtebete egin duzulako. Familiako-en partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **Nora Parada**, bihar 2 urte egingo dituzulako. Amama Maria Luisaren partez.



• Zorionak, **Gabriel**, Miriam eta Elenaren partez. Ondo pasa zure eguna!




• Zorionak, **Garazi**, gaur 6 urte egin dituzulako. Etxekoen, eta bereziki, ahizpa Irunereren partez.



• Zorionak, **Aida**, zure berdeztigarren urtebetetzean. Muxu handi bat Tamaren, gurasoen eta aitona-amonen partez.



• Zorionak, **Bidatz** 5 urte Bertosoko printzesak.



• Zorionak, **Ander**, 5 urte egingo dituzulako. Ondo pasa! Etxekoen eta bereziki, Garazi, Naroa, Nahia eta Ainhoaren partez.



• Segi inguruko guztiak alaitzen, mutil handi! Berekada bero bat, maitia. Zorionak!



• Zorionak, **sorgintxo**, asteartean urte bat egin zenuelako. Muxu potolo bat familiako-en partez! Paaaa!



• Zorionak, **Jokin**, gaur 8 urte egin dituzulako. Egundahaztezinaz izan dezazula. Muxu handi bat, etxekoen partez.



• Zorionak, **Ion**, asteazkenean 4 urte egin zenituelako. Etxekoen partez, muxu bat.



• Zorionak, **Malen**, atzo 9 urte egin zenituelako. Muxu handi bat etxekoen, eta bereziki, ahizpa Nahiaren partez.



• Zorionak, **Garazi**, zure laugarren urtebetetzean. Guraso, anaia Elur eta Unai, lehengusu eta amonaren partez.



• Zorionak, **Manex** 16an, 3 urte! Ondo pasa eguna eta muxu handi bat Maddi, Rotisa eta beste guztien partez.



• Zorionak, **Kenar**, gaur 2 urte handi egin dituzulako. Patxo erraldoi bat, maitia, etxeko guztien partetik.

Erretratu bakarrekog agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 euro.

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. **BARRENEko** bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

LUDOTEKAKO EKINTZAK

**BAZKIDE IZATEKO
EPEA ZABALIK**

**URRITIK ABUZTURA
BITARTEKO KUOTA 40 EURO
5 ETA 12 URTE BITARTEKO
HAURRENTZAT
ANIMA ZAITEZ!**



GAZTELEKUKO EKINTZAK

PING-PONG TXAPELKETA

**IZENA EMATEKO
AZKEN EGUNA: URRIAK 8
URRIAREN 9AN HASIERA!
ABENDUAREN 17AN
FINAL HANDIA!
ANIMATU!**



OKINDEGIA

10 domeka **IBARRENEA**
12 martitzena **FOTERO**
17 domeka **EIZAGIRRE**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

8 Ibañez
9 Garitaonandia-Bidasolo
10 Garitaonandia-Bidasolo
11 Etxeberria (*Santa Ana*)
12 Yudego
13 Yudego
14 Zabaleta
15 Etxeberria (*Errosario*)
16 Ibañez
Goizez: Etxeberria (S.A.)
17 Ibañez
18 Garitaonandia-Bidasolo
19 Etxeberria (*Santa Ana*)
20 Fernandez
21 Yudego

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384



INFORMAZIO

GEHIAGO:Egin klik
www.elgoiBARREN.net



8 barixakua

Irakurketa publikoa

9:00 Esaera zaharrak
Gotzon Garate idazle eta euskaltzale elgoibartarra hil zeneko bigarren urteurrenean 6.000 esaera zahar irakurriko dituzte 600 lagunek. Udaletxeko pleno aretoan.

Antzerkia

20:30 'Fo'
Los Modernos taldeak *Fo* antzezlanaren taularatuko du, Herriko Antzokian.

10 domeka

Antzerkia

16:30 'Txirulari magikoa'
Paraiso teatroak *Txirulari magikoa* antzezlanaren aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

15 barixakua

Hitzaldia

19:00 'Erabateko barkamena'
Andrea Sydow adituak eskainiko du hitzaldia, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

16 zapatua

Aisialdia

Atxutxiamaikaren
15. urteurrena
11:30 Hitzordua
Atxutxiamaikako hezitzaile, guraso eta haurrak Plaza Handian elkartuko dira.
12:00 Ginkana
Herrian zehar hainbat proba egingo dituzte parte-hartzaile guztiek.
14:30 Bazkaria
Leku Ederren.
18:00 Erromeria
Leku Ederren.

17 domeka

Musika

12:30 Udal Musika Banda eta Musika Eskolako banda
Bi taldeek kontzertua eskainiko dute, Herriko Antzokian.

ERROSARIO KALEKO JAIAK 2010

8 BARIXAKUA

17:30 Kiribilka. Errosario kalean.
19:30 Igel-toka lehiaketa
21:15 Afaria. Kultur Etxeko sotoan.



9 ZAPATUA

11:15 Pilota partidak. Arribi-Kepa / Lizarraga-Txurruka
12:00 Pilota partiden finala. 10 bai torneoko finala
13:00 Herri kirolak. Nafarroa plazan, Kultur Etxe parean.



«Shrek, felices para siempre»

11, astelehena: 21:30
12, asteartea: 16:30

«Conocerás al hombre de tus sueños»

15, barixakua: 22:15
16, zapatua: 19:00/22:15
17, domeka: 19:00
18, asteartea: 19:00

«Villa Amalia» (Ongarri zine-kluba)

21, osteguna: 21:30



NEREA IÑIGUEZ HORTZ KLINIKA



Hortz Klinika berritu eta handitu dugu

INAUGURAZIO EKITALDIA URRIAK 15, 19:00etan

Zatoz inauguraziora
eta lortu oparia



CLÍNICA DENTAL
NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA

-80€
OPARIA

T: 943 030 512

- ✓ Aho eta inplante kirurgia
- ✓ Hortzetako protesiak
- ✓ Hortz estetika
- ✓ Ortodontzia
- ✓ Odontopediatria
- ✓ Endodontzia eta odontologia kontserbadorea

San Inazio, 4
48260 Ermua (Bizkaia)
(sarrera Bizkaia etorbidetik)
Tel.: 943 030 512
Faxa: 943 031 045
niklinika@gmail.com